

# Pasabidea - Alta - Zizur Nagusia

## Xedea

Ibilgailuak espaloietan barna pasatzeko, eta eremu publikoa aparkaleku eskusiborako nahiz edozein motako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko baimen eskaera.

## Organo kudeatzailea

Zizur Nagusiko Udaleko Ogasun Departamentua

## Eskaera aurkezteko epea

- Ez dago eperik.

## Organo erabakitzailea

- Tokiko Gobernu Batzordea.

## Onuradunak

- Edozein pertsona fisiko nahiz juridiko.

## Aurkezteko lekua

Zizur Nagusiko Udaleko Zerbitzu Orokorren Departamentua

## Zenbatekoa

Ikus berariazko datuak.

## Eskaera bideratzeko epea

- Bi aste inguru.

## Dokumentazioa

- Eskaera orria.

- Espaloiaeren ertza jan behar bada, eskaera orrian adieraziko da.

## Araudia

- Ibilgailuak espaloietan barna pasatzeko, eta eremu publikoa aparkaleku eskusiborako edo edozein motako salgaien zamalanetarako erreserbatzeko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala. (NAOn argitaratua, 21. zk-n, 2001eko otsailaren 14koan)

## Berariazko datuak

- Zerga urteko osokoa da, eta urtearen lehen hiru hilekoan igortzen da.

## TASAK

- Familia bakarreko etxebizitzetara eta orubeei lotuta: etxe bakoitzeko, eta gordetako espazioagatik, independentea izan nahiz besterekin banatua, urtean 88,65 euro.

- Etxebizitza kolektiboetara lotuta:

1 eta 4 etxebizitza bitartean: 122,90 euro/urtean

5 eta 10 etxebizitza bitartean: 128,74 euro/urtean

11 eta 25 etxebizitza bitartean: 146,31 euro/urtean

26 eta 50 etxebizitza bitartean: 175,57 euro/urtean

51 eta 100 etxebizitza bitartean: 234,10 euro/urtean

101 eta 150 etxebizitza bitartean: 292,62 euro/urtean

150 etxebizitzatik gora: 351,14 euro/urtean

- Espazioa gordetzea: erreserbatze iraunkorra, metro linealeko edo zatiki bakoitzeko 58,53 euro urtean.

- Ordutegi zehatz baterako gordetzea::metro linealeko edo zatiki bakoitzeko 43,89 euro urtean.

#### OHARRAK

- Lokalek irekitzeko lizentzia izan behar dute.

- Familia bakarreko etxebizitzek lehen erabilpeneko lizentzia izan behar dute.

- Espaloiari ertza jan behar bazaio, obrak eskatzaileak hartu beharko ditu bere gain.

- Aprobetxamendua onartzen den unean berean, edo, beharrezkoa den baimenik gabe eginen balitz, aprobetxamendua hasten den unean berean sortzen da tasa ordaindu beharra.

**Aldaketa eguna:** 2006/02/20

**Iraunaldia:** 2007/02/15